

Cresen Urkidi Astorkia

*Aulesti, Bizkaia
(1930)*

Aurkibidea

Biografia



Zubero auzoko Zuberoetxebarri baserrian jaio zen 1930ean. Hamar anai-arreba ziren. Umetan herriko eskolan ibili zen zazpi urterekin hasi eta 14ra arte. Ezkondu eta lehen umea izan ostean, bost urte pasa zituen Venezuelan, senarrak han negozio bat zuelako. Handik etorri eta beste bi ume izan zituzten.

Zintak

AUL-003

- **Proiektua:** Lea-Artibaiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Data:** 2009-06-09
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Zubero auzoan jaioa

- **Erref:** AUL-003/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Zubero auzoko Zuberoetxebarri baserrian jaio zen 1930eko otsailaren 14an. Zubero auzoko baserri izenak aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

-Hasteko izena, zure izena da?

- Cresen Urkidi Astorkia.

-Eta esan dozu jaixo ziñala, Zuberon, Zubero auzuan?

-Zuberon bai.

-Ta ze etxetan?

-Zuberoetxebarri.

- Zuberoetxebarri dake izena baserrixak?

-Bai Etxebarri da bai.

-Eta ze urtetan jaixotakua zara?

-Treintan.

-Ze egunetan?

-“Febrero, catorce, día de San Valentin”.

-Eta han Zubero auzuan basarri asko dare edo...?

-Bai bueno ba zenbat egongo dire ba beittu, bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar, hamaike bat-edo. Bakizu jausi be ein zan etxi be, hamaike baserri bai behintzet, bai.

-Orduan desagertutako basarrixek be badare hor, ya jausi diranak.

-Ba ya desaparexidute da. Bizitza bikuk dire asko,ze Maixenekuk be bik dekoz, bi kontau leikez, Goittandikuk be bi, lau, Legarrekuk bat, bost, Uxartekuk beste bi ,zazpi, Itzekuk be beste bi, bederatzi, gure etxi be bizitza biku zan baiña bat bizi giñen hamaike. Hamaike pentsete ´ot dagozala e, zuzen ez dot esango iguel dana dala.

2. Gerra garaian, aita kartzelan

- **Erref:** AUL-003/002
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:03:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Auzoan, ume asko ziren. 10 neba-arreba ziren eta neba bat gerra aurretik Ameriketara joan zen, beste bi gerrara eta aita beste batekin kanpora joan zen hura harrapatu ez zezaten. Ama bost umegaz geratu zen, berak bost urte zituela. Aita eta beste neba etxera bueltatu ziren eta guardia zibilek aita atxilotu eta kartzelara eraman zuten.

Transkripzioa

-Auzuan ume asko juntauko ziñazien ez?

-Bai umiek olgetan-ta bueno asko, bai. "Treinta y seis" in gerri has izan aprillin ta nire neba bat, hamar neba-arreba izen giñen gu, ta neba bat Ameriketara jun zan gerri baiño aurreratxauu beste neba bi gerrara, gero beste bat hamazazpi urte eukezan ta aitte jun zan beragaz kanpora erun ez daizen ba, ta gero etorri ta ha ez zebezen erun. Baiña gero olgetan etartin gu umik ba, gure ama zerin geldittu zan bost umegaz, guk sei urte, bestik zortzi, bestik hamar, ta bestik hamabost. Ta etartin olgetan gaezala, Goardia Zobillek etor zirin ta "¿Juan Tomas Urkidi?" eta "presente" esan ban gure aittek. Ta bai, "¡Venga con nosotros!", ta "¿yo? Tengo que quitar las albarcas" esa ótsen, "no, con albarcas y todo". Ta erun ben kartzelara, ta kartzelan zemat denporan ein ban umi be banitzen ta ez dakit ba urte bi-edo, ez dakitt e. Ta nire ama ume pilluaz han geldittu zan, bai.

3. Errazionamendua eta errotak zarratuta. Dotrina euskaraz eta erdaraz

- **Erref:** AUL-003/003
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Garia entregatu egin behar izaten zuten eta txahala ere bai soldaduek jateko. Errotak zarratu zituzten eta ama Gernika ondoko Ugerkara joaten zen. Abioiekin-eta beldurtu egiten ziren. Eskolara zazpi urtegaz hasi zen, arbel bat eta entziklopedia bat baino ez zuten ikasteko. Dotrina eskolan erdaraz eta elizan euskaraz ikasten zuten.</p>

Transkripzioa

-Ta gero garixek eta entregau ein biher izeten genduzen, hona zerera ta txahala be erun eitten oskuen soldauei jaten emoteko. Ta txahala be gordeta egon zan ide artin. Ta gero errotara. Hamengo errotak zarratu ein zittuen ta Ugerka Gernike ondun da ta gure ama astugaz hara juten zan. Neu billurregaz jausi be eingo nitzen, baiña. Ta gu eskolara zazpi urtegaz

hasi giñen ta gero abioiek etozenin-ta billuertute ibiltten giñen. Ta eskolan eduki gendun bakarrik pizarrie, pizarriñegaz. Ta gero enziklopedixe bat bakarrik. Ta handitxik ikesi gendun. Bai, ta ba dotriñie, erdera eskolan ikesten gendun ta elixan euskera.

4. Eskola eta jolasak

- **Erref:** AUL-003/004
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:04:07. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Jolas desberdin askotara jolasten zuten: potoka, pilotaka, "tres-navíos"ka... Eskolara herrira joaten ziren. Neskak eta mutilak bananduta egoten ziren, neskek maistra zuten eta mutilek gizonezkoa. 14 urtera arte joan zen eskolara.</p>

Transkripzioa

-Ta gero olgau asko eitten giñen pelotaka ta "tres-navios"ka ta potoka ta. Bai.
-Eskolia, Zuberon bertan zekazuen?
-Ez, herrire.
-Hona etortzen ziñazien?
-Bai. Herrire. Oiñez jun ta etorri eitten gendun.
-Orduan auzo guztietako umiak egoten ziñazien hemen batera? Herrixen?
-Ez. Ordun ez euen autobusik ta kotxerik.
-Ez baiña auzo guztietakoak juntauko ziñazien, ez?
-Bai, ez, Goixerrixen bertan euken eskolie. Goixerri ba bastante urrin da. Baiña Malas be bastante urrin da, baiña harek be oiñez herrire etorten zien e! Danak. Danak bertora eskolara. Ta maistra bat eukitten gendun. Neskak bat ta mutillek beste partin. Aparte beti. Bai, ta errekreun olgau ta ba.
-Eta, hori, maisua be desberdiña? Neskak bat eta mutillak beste bat?
-Exakto. Mutillek maisue eukitten eben ta guk maistrie. Bai.
-Ta zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
-Zazpigaz. Zazpigaz hasi ta hamalaugaz itzi.
-Ta goiz ta atsalde egoten ziñazien eskolan?
-Bai. Goixin hamabixek artin pentsetan dot. Gero elixan ordu erdi dotriñie ikesten euskera. Ta gero etxera, bazkarixe jan ta ordu bixetan pentsetan dot arratsaldin, baiña ahaztu be eindde dauket e! Arratsaldin seirek artin edo eitten gendun, bai. Ta banderi ipini ta "cara al sol" kantau. Bai.
-Baiña hori ia gerraostian ala gerra aurrian be bai kantatzen zenduen.
-Ez. Ni gerra aurrian e, zazpiaz, sei urte neuken gerri hasi zanin. Bai. Gerra aurrekorik ba, bai hantxe, nik biki-lagune dauket eta burruke ein ta ba besterik ez gendun eitten. Ta beste neba zahartxuaue aurrian ibiltten gendun ta holakoxe zerak bai.

5. Aita bisitatzera kartzelara

- **Erref:** AUL-003/006

- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aita bisitatzera, kartzelara joan zen. Bilboko Larrinagara. Atearen akordua du, bueltak ematen zituela.</p>

Transkripzioa

- Akordetan naz gero aitte kartzelara ikusten jun nitzenin, baten erun nindun Bilbora juti ba, Larrinagan egon zan. Ta honako atie, bueltakue ta nik ezin pasau. "Pasau zaitte umia ba" esaten osten amak eta baiña ama ezin dot. Atzenin be berak urten ta erun nindun. Eske bueltie ensegida etorten dxaten ta bai. Ta kartzeli akordetan naz honako kuadrukin edo zala pentsetan dot. Bai. Ta ba, hantxe.
 - Zenbat urte zekazuzen zuk orduan, aitxa kartzelan egon zanian?
 - Kartzelan, zazpi urte eitteko. Bai, ta haixe atie akordetan dxate. Lehenakun Bilbon halakoxe hamen, nire umetako atie han "Baserri" edo dauen lekun. "Hala ba" esan neban. Bai.

6. Soldaduak Zubero goian

- **Erref:** AUL-003/007
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:09:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Arropak aipatzen ditu. Euria egin arren, ortozik ere ibiltzen ziren. Ondo pasatzen zuten, nahiz eta gerra sasoa izan. Bere amak asko sufritu zuen. Soldaduak Zubero baino gorago egoten ziren, Miñeko zuloan ezkututzen ziren aireplanoetatik, bonbardaketa egongo zela-eta.</p>

Transkripzioa

-Ta ba lantzin erropa bat. Gitxi eitten zan e! Abarketakin, euridxe bazan ortozik juten giñen etxera. Oin ez naz kapaz ortozik juteko, baiña.
 -Ia. Orduan ahal zan moduan.
 -Bai, bueno. Ta olgau ta. Bidetan ikuk harrapa- ta sagarrak-eta. Ondo pasau eitten gendun. Bakizu, gerri ta billurre ta bai, baiña.
 -Iguar enterau bez umiak ondiokan ta.
 -Umik ez dabe zertzen. Oin, nire amak ba sufriduko eban pentsau, hainbeste ume etxin ta. Gauza handirik ez gendun eingo guk.
 -Baiña bestela zuek hemen soldaurik eta ikusi zenduen gerra denporan, hemendik pasau zian?
 -Bai, ta nik aizte bi gero moja jun zin ta bat kapitana edo nire aitzigaz enamoraute egon zan ta ekarten eban jateko pillo bat ta gure amak harek jan gure ez. Bakizu, zerenak dizela ta. Ogi zuri ederra ta. Artu jaten gendun geuk igul, ogixe be eitten euskun, baiña garixe udaletxera ekarri biher izeten zan soldautzantzako. Ta harek jatekun bai lakterixe ta azukri ta kafi

ta. "Honek bota" esaten eban. Ez eban nahi izeten, bai. Soldauek han bai, ganera Zuberu baiño goratxua egon zirin ta bonbardiuk eta horrek. Ordun juten giñen, Miñeko zulu da hamentxe hortxe gora junde ta hantxe ezkutetan giñen. Zuberoko guztidxe e!
-Abioiak zetozenian ezkutetan ziñazen.
-Abioiek, bai, abioiek eta bonbardiuk egon biher dala-ta. Ta horrax Miñeko zulora. Oin, Zuberu ez zan, ezer ez zan pasau.

7. Gernikako bonbardaketa

- **Erref:** AUL-003/008
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:09:34. **Bukatu:** 00:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gernika bonbardatu zutenekoa kontatzen du. Bertatik pasatzen ziren, eta arbolapeetan ezkutetzen ziren.</p>

Transkripzioa

-Ta Gernika bonbardeau zabenian, zuek abioiak eta ikusiko zenduezan pasatzen, ez?
-Bai, bueno. Ha zertu zanin ta. Bertan ziher be pasetan zirin ta gu arbolapera juten giñen abioien billurregaz. Billurre eukitten gendun itzela e!
-Bai, zaratia atarako zebeñ hark eta zer ete dan eta, ez? Pixkat...
-Bai, ta ba, beste zerik ba.

8. Erromeria plazan eta inguruetakoko jaiak

- **Erref:** AUL-003/009
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:09:56. **Bukatu:** 00:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Jaietan erromeria egoten zen Aulestiko plazan. Lehen askoz jai gehiago ospatzen ziren, pazkoetan ere, Pazko Eguna, biharamuna eta hiru jai izaten zituzten. Kofradietan ere jai asko zeuden, Zuberu auzoan abuztuan San Lontzoak ospatzen zituzten. Auzoetakoko jaietara joateaz gain, Markinako Karmenetara ere joandakoak dira oinez. Bertan gertatutako anekdota bat kontatzen du.</p>

Transkripzioa

-Gero gaztetan erromerixi egoten zan beti plazan ta jaiak be gehixa egoten zirin. Pazkutan be egoten zirin, Pazko egune ta bixamona ta hiru jai. Mezi be danetan egoten zan e! Oin ba jaiak be kendu dittue, baiña asko jai gehixa. Ta plazan eukitten gendun erromerixe ta dantzatan ein ta.

-Plazan hemen esaten dozu.

-Hamentxe herriko plazan. Oin kopradixetan be bai, Zuberon San Lontzo, agostun izeten da. Ta gero beste kopradixetan be danin. Euren egunetan.

-Ta eukitxen zeunduen ohitxurarik beste auzuetara joateko-edo?

-Bai, bueno, gu gaztetan hainbeste ez giñen juten, Malaxera be baiña. Honaxe Burlara. Hori Burla izen zan hau elixie ein orduko edo herriko jenti juten zan horixe tokizkue. Ta bai, haraxe bai. Ha jai moduen hartzen zan herrixen be e! Ointxe be agostun izen be eitten da.

-Ta bestela, beste herri batzutara, Markiñara edo Lekeitxora edo?

-Markiñara bai, Karmenetan iñoz jun giñen oiñez. Ta gero han mantekaue jan, dirurik be ez gendun eukitten, txakur handixe-edo. Ta Jose Legarranin, hau, gaseosie edan. Harek keñetie eukitten eban ta haixe erateko ta gero mantekaue jateko. Ta baten barraketan bai, tia batek lehenengo han zerin itxi osten bai, Karmenetan. Ta mantekaue probau nebanin hain gozue, pentsau ba zelako iñuzentzixe, “amari erun biher dotset /bitset/” pentsau neban, baiña urtu dxaten dana ta ez amantzako ta ez neutzako. Ez euen aukerarik baiña...

-Orduan ilusiñoa ez? Igual Markiñara edo juateko edo? Askotan ez ziñazien juango ta.

-Bai. Sasoz etorten giñen e! Jun mezetara-edo ta gero bueltan egun argiz. Oiñez. Zera, lagun kuadrillie. Ta umik bakizu.

-Bidetxua egongo zan hemendik Markiñara oiñez ezta?

-Ez geuntsen igerten. Ordun asko ibiltten zan oiñez. Ta ba, pozik.

9. Santa Eufemia eguna

- **Erref:** AUL-003/010
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:12:12. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Santa Eufemira ez ziren joaten bidetik, mendiz joaten ziren. Santa Eufemia egunean erromeria egoten zen, baita postuak ere. Postuak-eta taberna legez jartzeko ordaindu egin behar izaten zen. Soinu-jotzaileak egoten ziren, eta gizonek ordaindu egin behar izaten zuten dantzan aritzeko.</p>

Transkripzioa

- Ta bestela Santa Eufemira ta? Santa Eufemira?

- Santa Eufemire ta oiñez. Bueno, Zuberotik ba hurra da egon be e! Baiña gero juten giñen hor kamiñotik barik han mendittik ziher. Oin dana sasidxe da ta ba ez da zertzen. Baiña mendittik ziher ondo.

- Mendiz.

- Bai.

- Ta zer egoten zan lehen, Santa Eufemi egunian-edo?

- Santa Eufemi egunin erromeridxe itzela ta gero jentik tabernak ipintten zittun ta harek tabernak hartzeko, puestuk, udaletxin diru bat pagau biher izeten eben. Ta hara tabernara jeneru eruten eben burdidxekin ta euridxe eitten bazan txarto. Gero ondo pasau eitten gendun e! Laban einde lantzin bat, geu be jausten giñen ta talo itzelakin ta. Bakizu, gaztik zera.

- Ya, inporta ez.

- Bai.

- Orduan egoten zien, taberna postuak zabaltzen zitxuen.

- Bai, igul eongo zirin han tabernak, herriko tabernak gehidxenak erungo eben tabernie ta eongo zirin sei bat taberna, bai. Euren lekutan. Leku handidxe da egon be. Bai, euren zera ta leku hobakue gehidxa pagetan eben. Udaletxik jan eitten eban han ta ha igul ez eben pagau eingo, baiña leku ona. Ta oin ez da egoten. Oin bakarrik bertan da etxe bat eindde ta hantxe.

- Ta erromerixie esan dozu, zer egoten zan soinujolen bat, edo?

- Soiñojotzailiek bai. Ta soiñojotzailiek gaiñera, zera, gizonezkuk pagau ein biher izeten eben e! Ez dakit zen zan pagetan dabena. Andrazkuk ez.

- Dantza bakoitzeko?

- Ez, ha sellu ipinidakun nik pentsetan dot /pentsetot/ gau guztireko.

- Eta zer izeten zan, hemen ingurukoren bat edo soiñue joten?

- Bai. Han Santa Eufemin igul hiru grupo be egoten zirin ta hemen herriko plazan udaletxeko partin bat eoten zan ta besti goiko partin. Bi. Bai. Diru pillu batzen eben e!

- Haura, dantzako dirua eurendako izango zan, ez?

- Klaro. Soiñu joten dabenantzako. Eurek be han plazan soiñu joten, oin bertan herridxen, domekatan beti, jaidxetan beti egoten zan ta ha ez dakit herridxek ipini nahiko harek ez eban baña Santa Eufemitan pagau ein biher izeten eben e! Euren zera.

- Euren puestua?

- Bai.

- Harek be bai pagau eitxen zeben?

- Bai. Ta ba, hortxe, lehenengo meza nausiera etorten giñen, arratsaldin errosaridxora ta gero pasiun ein hor gora ta behera.

10. Andrerik ez tabernetan

- **Erref:** AUL-003/011
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Andrazkoak ezin izaten ziren tabernara sartu, bakarrik San Joanetan sartzen ziren pastelak-edo jateko, gizonezko batek gonbidatuz gero. Idi-probak ere egoten ziren jaietan.</p>

Transkripzioa

- Andrazkuk ganera tabernara sartzerik ez gendun eukitten, bueno. Tabernara juten zinak andra galduk edo zirin. Ta gizonezkuk bai e! Hasi, taberna asko euen lehen hamen. Oin gitxi da. Han beheien hasi ta hor zerera, Lukasenera artin dana korriduten eben. Baiña guk bakarrik San Junetan, pastelak nonok, gizonezko batek, inibitetan bagaittu.

- Bakarrik ezin sartu.

- Bakarrik ezin sartu ta dirurik be igul ez gendun euko, baiña. Bai, baiña gizonezkuk bai e! Gero probak be egoten zirin ta probatara gizonezkuk juten zirin.

11. Zinea

- **Erref:** AUL-003/012
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Herriko abade batek pelikulak jartzen zituen eliza ondoan, berak 26 urte-edo zituela. Gero bizikletan joaten ziren inguruko herrietako zinema aretoetara.</p>

Transkripzioa

- Baten Charlotten pelikuli emon euskuen hantxe arkupin. Politte e! Bai, hamabi bat urte-edo euko nittun ta bueno, total gustaute.
- Klaro, hemen zinerik eta ez zan egongo?
- Ez, gero, bueno ya nausidxaue nitzen ni, hogeta sei urte be bai ta herriko abade batek han elidxin ondoko zerin pelikula polittek emoten euskuzen e! Baiña juten giñen gero zinera bizikletan igul. Lekittora be bai, ta Bilbora nebiegaz-ta.

12. Aulestiko lehen ibilgailuak

- **Erref:** AUL-003/013
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:16:02. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Lehenengo autoa herrian taxi bat izan zen. Juanita Angizek kamioiak zituen garraiorako. Okinak ere bazuen. Zaldi-gurdiak ere ezagutu zituen, gehienbat karga eramateko erabiltzen zuten. Autobusari "korreoa" deitzen zieten, Lekeitiotik Bilbora arte joaten zen.</p>

Transkripzioa

-Kotxik be gitxi euezan.
-Lehenengo kotxea herrixan, zeifiek ekarri zeban?
-Bueno, lehenengo kotxie, taxize euken Ubillak. Hantxe zan. Ta gero honek, Juanita Angizek eta kamioie eukezan, transporterako ta bai, Astudiko zerak be bai. Lehenengo kaballoko karrue ta gero kotxie be euki eban e! Ta panaderuk be bai. Baiña kotxe gitxi.
-Ta zaldi karroak, kaballuekin ta?
-Zaldi karrue bai, eduki eban.
-Hori be ezautu zenduan orduan hemen?
-Bai, Astudiko gizonak bai.
-Baiña zer eruaten zan kargia edo jentia eruateko be bai?
-Han nik jenteik, neu sekulo ez nintzen jun ta, baiña nik pentsetan dot gauzi saltzeko edo nonor erun be eingo eban. Ezautu ein neban e!

-Ta autobusik eta?

-Autobuse bai, korriu esaten geuntsen. Ha zan, goixin juten zan zazpiretan ta illuntzin ez dait ba bederatziretan edo etorten zan. Bai, ha beti ezautu neban e! Hari lehen korriu esaten geuntsen. Harek kartak erun ta ekarri eitten zittun ta.

-Korrea?

-Korriu, bai.

-Ta nora joaten zan? Hemendik edo nundik nora pasatzen zan?

-Bai, Bilbora artin bai.

-A, Bilbora arte?

-Bai. Lekittotik etorten zan.

13. Umetako olgetak

- **Erref:** AUL-003/015
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:20:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jokoak aipatzen ditu: tresna biozka, potoka, txorromorroka, kartaka, aponga, intxaurrak zuloan sartzen, katxorratarra, kubike... Behin maistrak zigortu egiten zuten txorromorroka aritzearren, antza mutilen jolasa zelako. Aipatutako jolas batzuk zelan ziren azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Ta lehen esan dozu umetan jolasian ta, pote-poteka edo, "tres navios" ta.
- Hombre, "tres navios" ta pañelu bota ta, ahaztu be eindde daukedaz.
- Txorromorroka be eitten gendun, baiña maistrik kastigau ein gaittun baten be txorromorroka topau gaittula. Ta beste baten kartakin jokun ta belauniko eskuk zabalik. Txorromorroka be mutillen juegue dala esan euskun. Bai.
- Kastigaute eskuk zabalik belauniko egon biher izen gendun e! Bai.
- Orduan neskak eta mutillak jolas desberdiñak eitxen zenduezen?
- Bai. Harek behintzet kastgau ein gaittun. Txorromorroka ez dala neskan zera ta. Bai, baiña. Aponga be bai, bueno zenbat juego. Apon bat eta nire aitzik esaten eusten amesetan be haixe eitten dotela. Aponga. Hainbeste juego irabazten nittun e! Bota kañeki ta. Bai, "zulo", "lepo", "culito" ta "Carnito". Buelta emon ta gero zera. Gero intxaurrekin zera, zulun sartzen be bai.
- Bai, kanikekin moduan intxaurrekin.
- Bai, zulue ein ta hantxe sartu ta beste bat honako illadie ipini ta katxorra edo esaten dxakon han txikidxe. Ha txikidxe bota ezkerro dan danak zeutzako. Bai, juego asko.
- Katxorra ze zan?
- Katxorra izeten zan intxaur txikitxu bat ta bestik illadi igul dozena bat ta han bat euen leku, ha botaten bazendun, intxaur guztidxe zeutzako. Oin hamen illaran dauena bat ataraten bazendun, bat. Baiña ha atara ezkerro dan-danak zeutzako.
- Katxorra atara ezkerro.
- Juego asko. Bai, ahaztu be eindde deukedaz baiña.
- Eta hori, han Zuberon auzuan edo hemen herrixan jolasten ziñazien.
- Hamen errekreun, Zubero auzun be bai, han nausidxe guri begire egoten zirin. Han be zera kubike barretz lantzin leku baten sabaidxetan ezkutaute. Oingo aldin olgeta asko eitten gendun. Besterik be ez geunken e!

14. Ameriketatik ekarritako irratia

- **Erref:** AUL-003/016
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:20:11. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Berak 16 urte zituela ekarri zuen bere nebak irratia Ameriketatik. Lehenago auzoko baten etxera joaten ziren irratia entzuten.</p>

Transkripzioa

- Beste entretenimenturik bez, telebisiñorik bez, radixorik bez, ezebez.
- Ez. Radixu nire nebak, Ameriketa jun zanak ekarri eban nik hamasei urte neukezanin. Ta beste auzoko batek euki eban Marixeneku ta haraxe juten giñen radixu entzuten. Bai, baiña, besteik be ez geunken ta ba. Gero hemen, horko etxin euken batek zera ta kanpotik entzuten gendun ta geuk pentsetan gendun, danin eitten ete daben, umin kontue: harek radixuk danin igul eitten ete daben geure zera izeten zan ba.

15. Argindarra

- **Erref:** AUL-003/017
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Argia beti ezagutu izan du baina eskasa. Kortara joaterakoan petrolioa edo karburua eraman behar izaten zuten lana egiteko. Kontuz ibili behar ziren lastoa-eta ez erretzeko. Gero Iberdrolak jarri zien baina arazoak izan zituzten. Munitibarreko batek linea ostu eta bi urtez argi gabe egon ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta bestela, zu umia ziñanian etxian ura ta argixa ta hori beti ezagutu dozu?

- Bueno, argidxe bai, baiña eskasa. Honek, lehenengo egon zan argidxe, hamen Zabalbeaskoak edo euken saltue ta hango argidxe. Txikidxe zan, baiña kortara juten giñenin be petroliu edo karburu-edo erun biher izeten gendun edo kandelie kortako biherrak eitteko. Ta ba, han zera egoten zan asko, bedarra ta idie ta ba haretxeri sue emon ez deixon kontuz egon biher izeten gendun. Euki ein gendun, baiña txikidxe. Ipurtargixe lakoxie. Ezebe ez zan ha e! Ta gero Iberduerok ipini eban, baiña hamen linie galdu eitten eban ta gero hamen Munttubarko batek linie ostu ein euskun ta urte bidxen egon giñen argirik barik. Ta gero orduntxe “dos cientos veintin” handik urte bire ipini zan.

- Osea hasieran hori urakin ta ibiltan bazan gaiñera igual uda partian eta gutxiau euko zenduen, ez? Argi gutxiau?

- Bai.

- Lehortia egon ezkeru edo.

- Ez dakit ba uregaz edo hamengu, baiña ha argi eskasa euken “ciento veinticinco”kue Iberduerona be eskasa e! ze gurin be telebisiñoie biher zan ta beste auzoko batek be bai. Ba harek ipintten baban bueltaka hasten zan, indderra gitxi. Baiña halan ta guzti be labadora bat neuken krik-krauk eitteku, bentaji eitten eusten e! Ze haixe ipintteko lain. Oin telebisiñoie bueltaka hasi eitten zan baiña. Gero programi be gitxi euen. Ez dakit ba nik, goixin egon be ez dakit eitten zan. Ahaztute deuket. Illuntzin edo, arratsaldin bai. Baiña gero beste auzokuk ipintten baban indderra gitxi ta bueltaka hasten zan telebisiñoie.

16. Ura

- **Erref:** AUL-003/018
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:23:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Ura beti ezagutu zuen. Zuberon 1935 inguruan jarri zuten ura, garbitokia ere jarri zuten. Ura faltan izanez gero erre kara joaten ziren.</p>

Transkripzioa

-Eta ura, beti ezautu dozu?

-Ure? Zuberon eta hamen herrixen ez zan egon e! Zuberon "trenta y cincun"-edo ipini eben. Nik bost bat urte-edo neukela. Labaderu be ein eben ta ure han goittik etorten zan. Ur ona. Oin setienbrin-ta beti eskasa egoten zan ta gitxitxua, zarratu eitten zan ordu batzutan ta bai. Baiña ure behintzet beti ezautu neban nik e! Ta ure kentzen ebenien, erre kara jun biher jabonaduri eitten.

-Bai, bestela erropak garbitzeko ta be askan eitxen zenduen-edo?

-Bai. Erropak garbittu etxin be igul ze ba txorro be bageunken e! Txorro bat. Baiñoik eta ez. Komune kortara jausten zan holako zera. Gero bai, etxie gurin be ein zanin baiña ta danak ein zirin, baiña aurretik ez, aurretik zera.

-Hasieran kortara. Kortan zulu ta.

-Bai, ta ba txorrue zera ta, bai. Oin, ure edateko beste leku batetik igul ekarten gendun umik, freskuau e do hobi dala-ta, baiña ur gozu euen Zuberon e!

17. Umetatik baserriko beharretan

- **Erref:** AUL-003/019
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:23:58. **Bukatu:** 00:25:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ganaduarekin egin beharreko lanak azaltzen ditu. Umetatik egin behar izaten zuten lan. Emakumezkoek denetariko beharrak egiten zituzten, etxe barruan zein kanpoan.</p>

Transkripzioa

- Ta ganau asko ta eukitxen zenduen etxian?

- Bai. Gurin eoten zirin hamabi edo. Bai, gero ittaurren ein biher izeten zan. Ez dakizu zer dan ittaurre han bueno, atzetik gora ta behera, harek zaintzen. Astugaz bedarra ekarri ta astue igul bueltau eitten dxakon kargieta, bai.

- Ta ume-umetatik in bihar lan horrek, ezta?

- Bai, bueno, sei urtegaz ba igul egurrek etartetik ezkatzera erun-ta. Bai, morokille be igul ein biher izeten gendun ama daneri ezin allegau-ta. Nausixek danak jun zin. bata gerrara bestie kartzelara-ta.

- Klaro ta bestela andrak eingo zebe etxian etxeko gauzak eta gizonak gahixau kanpau edo zelan izeten zan, andrak danera?

- Bueno! Gure amak bueno, bihergin handidxe zan e! Bueno, nire aitte lako. Aittek bai, zeri handiku baiña ama bizkorra, esku bizkorreku. Etxin be erropak be josiko zittun umintzako, kaltzak be eingo zittun, kanpoko bihera be eitten eban, kortara be berak jun gure izeten eban ze aittek esne gitxi ekarten eban, txahalari emon ta harek ba umiri emoteko, ume kuadrilli gu ta bera gero kortara be ta danera e! Ta kanpora be bai, etxeko zerak eindde, kanpora be bai.

- Andrak danera. Etxian, kanpau ta danera.

- Bai, dana bai. Hori esaten eban nire aittek ba ama ariña hil zan ta: "ai...

ha Joxepa bazunan ba! Harek baiño garixe ariña ebaten ebanik eta harek preparau ta". Unadatan ba, zera ta "nundik nora hona bera". Larogeta zortzi urteaz hil zan aitte ta nundik nora ta ba "zerun dekezu ha itxaitten ba"- ta. "No! Haretxen faltatxu baxeukenat ba"-esaten eban.

18. Ama bi bider ezkonduakoa

- **Erref:** AUL-003/020
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:25:54. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Bere ama gogoratzen du, oso langilea izan zela dio, hamar ume izateaz gain etxea ere aurrera atera behar izan zuen. Bere ama 22 urteaz alargundu zen eta ume bi hil zitzaizkion. Bere aitarekin, koinatuarekin, ezkondu zen gero. Izeko "fiebre española"gaz hil zen.</p>

Transkripzioa

-Langilea orduan.

-Bai, abille zan e! Baiña asko tokau dxakon koittadueri.

-Ta gero hori, hamar ume hazi bihar eta.

-Hamar ume hazi. Lehenengo bikidxe, beittu ganera lehenengo ezkondu ta, han Zorua Goixerri urrin da ezta? Hangu zan bera. Ta soldau jun zan beran gizona ta bularretik gaidxue atrapau eban. Ta amak euki zittun bikidxe, nik ez nittun ezautu ta gizona bularretik hil dxakon ta seme-alabak be bai. Asike, hogeta bi urteaz alargundute ta ume bi hil dxakozan.

-A bai, e?

-Gero ostabe gerrie, harek bueno, ze pasau eban.

-Oseake orduan berriz ezkondu zan gero? Zure aitzakin.

-Gero, nire aittegaz, anaixie. Anaixie ta harek hiru anaixe. Arrebi be euki eben, baiña hau "fiebre española" edo zein zan? "La gripe española" edo.

-Gripia bai, gripe bat egon zan, hor.

-Orduntxe hil zan haren arrebie ta beste anaidxe bat, nire aitte baiño gaztiaue ta nire ama dotori egongo zan ta haren atzetik eta nire aittek, zera, nire aittitek nahi eban nire aitte amagaz ta nire ama alargundu zanin nahi eban beran jaidxotetxera jun ta "zu ez, zu hamengotxi zara" ta hantxe geldittu zan ta gero nire aitte orduntxe hasi fjetan, pentsau bez koiñetigaz ba ta haregaz ezkondu ta hamar ume euki zittun haregaz, hamar neba-arreba.

-Orduan zure ama Goierritik etorri zan Zuberora.

-Zuberora, bai.

-Ta gero hor ezkondu zan berriz.

-Hortxe bai. Ta gero alargundu ta umerik barik geldittu zanin ba amagana jun gure izen eban ta aittitek ezetz, "zu hamentxe biher zaittugu ta".

-Ikusiko zebeñ fiña zala ta, ez? Etxerako nahi.

-Bai. Ta gero nire tio ba han zerin ta ba, ta aittek ha baiño nire aitte nahi eban etxerako edo behintzet halan "ostu bi aukera Joxpa" joe, bueno, Ana Josefa zan baiña Joxpa esaten dxakon nire amari ta halantxik nire aitte. Ostantzin bakizu, gaztie izen be ta olgetan ta pentsau bez.

19. Bilbora saltzera

- **Erref:** AUL-003/021
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:31:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Bere aita baserrian eta basoan lan egindakoa zen. Egiten zituen beharrak azaltzen du. Lehen baso gutxiago eta solo gehiago zegoen. Diru apur bat ateratzen zuten, azukrea, olio eta erosteko, ortuariak eta saltzen. Fruta arbolak asko zituzten. Behin 20.000 kilo saldu zituztela azaltzen du. Bilbora joaten ziren San Antongo plazara, Juanita Angizen kamioian.</p>

Transkripzioa

-Ta aitzak bestela ze bihar eitxen zeban lan, etxian? Basarrixan eitxen zeban bihar edo aparte nunbaitxen be ibili zan?

-Ez, ordun ez euen aparte zerik e!

-Basarritxik?

-Baserridxe.

-Baiña igual basuan-edo?

-Basun bai. Basuk eta piñuk sartu ta basun ta gero idi ekarri ta han azpidxek eta eitteko idie. Ta bedar zikuk eta baserridxen biher asko. Lehen solo asko egoten zan: artu ta garidxe ta nabu ta.

-Bai, hainbeste baso ez zan egon be eingo, ez? Hainbeste piñu ez zan egongo.

-Hori, baso gitxia ta solo gehidxa. Jateko beste lekuri ez euen. Bueno, ba gero inddiarra ta sartzan zendun ta haren diruegaz azukri ta oridxu erosi biher eben /biben/. Fruterik be ez zan egon be eitten dendatan be, baiña etxin eoten zan: keixi ta melokoto ta jenero asko egoten zan e! Ta sagarrak urte birik baten egoten zirin.

-Orduan fruta-arbolak eta be eukitxen zenduezan etxian?

-Asko. Baten be gurin arbolak-ta pillo bat eongo zirin, sagar batzen-ta asko eitten gendun ta ganbaratik saldu zin hoge mille kilo. Ganbaratik etxerako apartaute e! Bai, urte batzutan asko. Arbolak ba handixek gero.

-Ta nora saltzen zenduezen?

-Bueno, ordun kontratistik. Ostantzin Bilbora jutun giñen.

-Autobusian.

-Bai, ointxe kanbidxau biher daben /bidaben/ hona plazara. Hau merkauau ointxe barriztetan dabiz ba! San Antongo plazara. Kamioie honek, Juanita Angizek euken ta hantxe kamioien otzaratan ipiñi beteta, zakugaz tapau ta sei edo zortzi otzara. Gero han maletteruk egoten zin otzarak ipintteko ta harek eruten euskuen. Ama jutun zan antxiñe, gero neu be jutun nintzen ta.

-Bilbora?

-Bilbon. Ta gero bilbotarrak apurtxu bet karu ikusten baeben, berez haziniko gauzi dala ta ha kobreti ez eben nahi izeten. Ta berez pentsau, lehenengo batu, harek ipini, harek erun ta dana berez eindde dauelakun.

-Klaro, harek ez eben ikusten zuek eitxen zenduen bihar guztia.

-Exakto, bai.

-Ta frutia saltzen zenduen edo bestela arrautzak eta holan be bai?
-Bueno, jente askok bai, guk ez gendun saltzen. Bueno, amak bai e! Gure ama Gernikera be, iñoz Durungora be jun zan oiñez, astugaz. Harek dana, arrautzak be saltzen zittun. Ba etxin noizipehin jaten zan arrautzie ze diru ekarri biher zan /bizan/ oridxu ta azukri-ta erosteko. Ta gero gurin diru asko be ez zan eongo, baiña euen aitte kartzelara erun ebenin dana enkatau ein euskuen. Euen diru be ezin atara.

20. Moja joateko dotea

- **Erref:** AUL-003/022
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:32:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Bere ahizpa promesa bat zela eta joan zen moja. Moja sartzeko dotea ordaindu behar zen, eta koinatuari eskatu zion dirua, amak plazan lortutako dirua oliao, azukrea-eta erosteko erabiltzen baitzuten.</p>

Transkripzioa

-Ta nire aitzie moja jun, ein eban /eiban/ promesa bat. Aintxiñe promesak eitten zirin ba. "Aittek kartzelatik urtetan badau, moja jungo naz"-ta halantxik. Eta gero mojatara dotie erun biher zan /bizan/ ta dotie zertzeko dirurik ez etxin ta beran koiñeto, bai koiñetu bateri kendu eutsen. Gero emon eutsen, ezta?

-Bueltau zotsan baiña.

-Bai, ez euen dirurik.

-Bai, orduan moja joateko be [...]

-Dotie, bai. Oin zenbat, horixe ideaik be ez dauket, baiña horixe entzun neutsen amari iñoz, Landaburun eskatu ebala dirue dotie emoteko. Ta berak plazatik bai ekarten eban, baiña azukri ta oridxu be biher zendun / bizendun/.Ta kafi be gitxi, urridxe, baiña. Artu ta esni ta talu ta esni ta. Neuri ez jate gustetan artu, baiña.

21. Gaztetako jatekoak: ortuariak

- **Erref:** AUL-003/023
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:32:01. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Oilaskoa jaietan jaten zuten, San Lontzotan. Arrautza ere noizean behin jaten zuten. Txahala eta txerria hiltzerakoan janari lortzen zuten. Bestela baba, indabak, lekak, porru-pataak... jaten zituzten. Letxuga azukrearekin eta ozpinarekin jaten zutela ere kontatzen du, eta saltsa hura bustitzea asko gustatzen zitzairen. Tomatea ez zuten gordinik jaten.</p>

Transkripzioa

-Hori, etxian jan bihar ba beti artue ta esnie ta holakoak eta oillaskorik eta be igual ez zan jango.

-Oillasku bai, jaidxetan.

-Jaixetan?

-Bai, san Lontzotan. Bueno, luju zan ta arrautzi be noizipein. Oin zeziñe eitten zan e! Txahala hiltten zan ta gatzuneskan ipiñi ta ha egosi ta zera bai. Ta lehenengo ganera odolestak-eta txorizuk-eta. Txarridxe be hiltten zan. Bai.

-Bestela zer jaten zenduen, babak? Babak-edo?

-Babi, inddarrak. Babie, hori esaten eban amak. Babie-ta batzutan inddarrari sartzen eutsen babi ta guk umik jan ez. Ta gero eitten eban, berari asko gustetan dxakon ta aparte ein babie ze umik jati nahi izeten eban ta babi sartzen baotsen gustau ez guri. Ta inddarra, porro-patie, baiñak be bai.

-Berdurak, orduan?

-Bai. Azalgarik, ortuaridxe, azalgarik eta ez dakit eukitten bagendun. Porru ta holaku bai. Ta gero tomati ta piperra ta horrek bai.

-Ta tomatia jaten zenduen, gordiñik?

-Gordiñik bai. Gordiñik ez dakit ba tomati jaten gendun, baiña letxugie azukri ta biñegriaz ta guk eitten gendun haxe saltsatxu busti. Ze azukri, bakizu, gozue. Ta biñegri pentsetan dot botaten dxakola ba-ta. Nire nebi Ameriketatik etorri zanin esan eban: "baiña ensaladi gatzagaz ein biher da /bida/". Ta orduntxe gatza ta oridxu ta zeragaz eitti ta tomatie. Tomatie koziñaute, kipuligaz koziñaute.

-Bai, gehixa gehixau eingo zan koziñauta.

-Bai. Nik ez dot pentsetan gordiñik, ez dot pentsetan jaten gendunik e!

-Bai, ta letxugia be ez dakit ba pentsauko zan igual zatarra zala-edo, azukria botatzeko, ez?

-Exakto. Ta ha letxugie ba bueno, gu geuk behintzet orri asko ez gendun jaten. Ha saltsatxu bai, busti ogidxegaz ta. Bai, ba halantxik dalakun. Ta gero ensaladie. Gatzagaz ta zerin, bai.

22. Ogia ezkutuan egiten

- **Erref:** AUL-003/024
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Garia udaletxeko arkupeetan entregatu behar izaten zuten. Etxean ere apur bat ezkutatuta izaten zuten, eta bere amak gauez erabiltzen zuen labea, bertatik irteten zen kea soldaduek ikusi ez zezaten. Beraien auzoko batzuekin gertatutako istorio bat kontatzen du.</p>

Transkripzioa

-Ta lehen esan dozu garixa entregau bihar izaten zenduela.

-Garidxe bai. Garidxek danak hamen arkupi da udaletxin azpidxen, hantxe garidxek. Ta gero etxin ezkutaute eukitten gendun sarritten ze gure ama be gabaz juten zan, pentsau idxe Gernikera artin astuegaz. Ta zera be,

labako suk be keie botaten daben lez, gabaz eitten eban ze soldauek ebizen lez hor zerien, ikusi ezkeru ez geunken ogidxe eitteko permisarik eta. Gabaz ein ze keie botaten dau labik eta.

-Ezkutuan, orduan, ez?

-Dana ezkutun.

-Ta txarrixa hiltzerik eta be ez zan egongo ala?

-Nik ez dakit ordun zelan ez naz akordetan. Deuket goguen, nire auzoko batzuk han berbetan euezan ta umi ba nik be sei-zazpi urte ez nittun euko ta eurek bixek esan eben: "Geuk behintzet goserik ez dekegu" ta harrokeridhan. Ta "Ene! Honek zer pentsau dabe" esan neban "nik gosie deketela?", ebai neban honakoxe ogi taku ta euren aurrera ogidxe jaten. Haxe gogun eukitten dot e! Ez neban nahi guk be gosie geunkela esan deixen.

23. Aulestiko denda eta tabernak

- **Erref:** AUL-003/026
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:35:40. **Bukatu:** 00:36:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Aulestin bost denda egon ziren. Tabernak ere asko egon ziren, banan-banan aipatzen ditu. Gizonak bakarrik joaten ziren. Domeka arratsaldetan dendak zabalik egoten ziren, eta kakahueteak-eta erosten zituzten.

24. Feriak, probak eta erromeriak

- **Erref:** AUL-003/027
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:36:47. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Ganadu feria eta probak egiten ziren. Baina andrazkoentzako ez ziren izaten. Erromeria asko izaten zituzten. Dantza egitea ere bekatua omen zen abadearen ustez. Erromeria eta gero mutilek neskei etxera laguntzen zieten.

25. Abadeak eta mezak

- **Erref:** AUL-003/028
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:40:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Gerra denboran sei bat abade egon ziren Aulestin. Sasoi hartako abadeek ez zuten jornalik izaten. Mezak goizeko zazpitan hasten ziren, hiru abadek zuzendutako mezak izaten ziren. Domeketan, jai erdietan, jaietan, erromeri egunetan, pazkoetan... egoten zen meza. Mezetara joaten ez zena txarto ikusia zen.</p>

26. Dotrina eta sakramentuak

- **Erref:** AUL-003/029
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:40:05. **Bukatu:** 00:41:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Dotrina eskolan erdaraz ikasten zuten eta herrian euskaraz. Lehen jaunartzea zazpi urterekin egiten zuten. Noizean behin konfesatzera joaten ziren. 14 urterekin-edo Hijas de Maríanekoa izaten zuten hilaren bigarrenean, hilaren hirugarrenean Jesusen bihotzekoa, bederatziurrenak, Kontzesiokoa...</p>

27. Eskolako kontuak

- **Erref:** AUL-003/032
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:45:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Eskolan ez zuten azterketarik izaten. Entziklopedi bat, idazlanak egiteko koaderno bat, arbel bat eta tintadun lumak izaten zituzten. Eskolan dena egiten zuten erdaraz baina arin ikasi zutela dio. Sestaoko maistra izan zuten, Rosario Aiestaran. Arratsaldetan josten ikasten zuten, emakumezkoek baino ez. Gustura joaten zen eskolara, lagunekin-eta egoten zelako: olgetan, karramarroak harrapatzen errekan...</p>

28. Ezin bainatu, hankak busti baino ez

- **Erref:** AUL-003/033
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:45:08. **Bukatu:** 00:45:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Zuberotik "Iguti"ra joaten ziren bainatzera. Ez zuten bainujantzirik eta hankak baino ez zituzten bustitzen. Mutilak bai bainatzen ziren, mutil gehienek uger egiten ikasi zuten. Lekeitiora ere joandakoak dira, baina hankak baino ez zituzten bustitzen. Bere lehen bainujantzia 25 urtegaraz erosi zuen.

29. Bizikletaz gaztetatik. Mutilek aukera gehiago

- **Erref:** AUL-003/034
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:45:57. **Bukatu:** 00:47:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Zuberon bik zuten bizikleta. Behin Bermeora arte ere joan ziren. Lehen noizean behin agertzen zen ibilgailuren bat eta bideak ere estuagoak ziren. Gaur egun ezin daitekeela horrela ibili dio. Mutil askok zuten bizikleta baina andrazkoek ostera ez. Mutilek aukera gehiago zituzten, ikasketetan ere bai.

30. Bilbon jostun ikasten

- **Erref:** AUL-003/035
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:47:58. **Bukatu:** 00:50:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Bilbon egon zen josten ikasten, bere lagun min batekin. Bertan zinemara joaten ziren tranbia hartuta. Orduko galtzak arin apurtzen zirela dio eta lan asko zuten. Izeko baten etxean pasatzen zuen astea Bilbon bertan, guztira sei hilabetez egon zen. Inoiz ez da aritu jostun legez beharrean, etxekoentzat baino ez du josi.

31. Bost urtez Venezuelan, arepak egiten

- **Erref:** AUL-003/036
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:50:15. **Bukatu:** 00:52:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Ezkondu eta gero bere senarra Venezuelara joan zen, eta bost urtetara izan zuten lehenengo semea. Bere amak hazi zuela bere lehenengo semea dio. Lau urteko umea amamagaz utzi eta Venezuelara joan zen bost urtez senarrarengana. Senarra gaixotu ostean bueltatu ziren etxera. Oso gustura egon zen bertan. Negozioa zuten bertan, arepak egiten. Arepa zer den azaltzen du eta zelan egiten den.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com